

URDAIBAI

2017
zenb. 10
.....

© MAGAZINE

ASTILLEROS DE BERMEO, anpliazio baten historia

┆ LOREA BILBAO, EUSKERA
ETA KULTURAKO FORU
DIPUTATUA

┆ ARTEAGAKO GAZTELUA

┆ JOSE LABAURIA PLAZA

┆ URDAIBAIKO TXAKOLINA,
USAIN GOZOA ETA
BUKETA

┆ BIOTEKNOLOGIA URA
ARAZTEKO ARRATZUN



THE EUROPEAN-ATLANTIC CORRIDOR LOGISTIC HUB

THE PERFECT CONNECTION



Baliabideak optimizatzeko aukera ematen digun elkarlanaren bidez, azpiegitura eta plataforma logistiko intermodalak garatu eta sustatzen ditugu Euskadiko industria-sektorearen lehiakortasuna handitzeko helburuarekin.

Aparteko etekina lortze aldera.

WWW.BASQUECOUNTRYLOGISTICS.COM

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GURE BIZIETAKO ESZENATOKIA

Ohiko landa kultura eta kultura industrialia gure eskualdearen pentsaeran agerian dagoz. Guztia zor deusagu gure historiari eta aipatutako modelo horien gainbeherak, komunikazioaren arrierapena kontutan izanda, sozioekonomia eta kulturarako bultzagarria, ezinegona sortu deusku.

Busturialdean geure potentzian sinesten dogu eta be-
rau definitzeko pausoak emon dira. Pausoz-pauso etorki-
zun bat marrazten ari gara. Ibilbide honen alde egiten dabe
baita be zeresan handia daukaten hiri ordenantzako HA-
POek. Hauek lantzen gure herrietako batzuk murgilduta
daude. Etorkizunean nolakoak izan gura dogun aurreikus-
teko. Udal erantzunkizun honek, herritarron parte-
hartzearen laguntzaz, hausnarketara, birmoldaketara eta
garapen iraunkorrera gonbidatzen dau.

Hirigintza planen errebisioa herritarrek eta udal gobernuek
erantzukizuna partekatzeko aukera da. Horrela, guztion
artean garapen eredia definitzeko, osagairik ahaztu barik.
Udalerrria norantz zabaldu gura eta ahal dogun, zerbitzuen
azpiegiturak non kokatu gura doguz, non industria, non ai-
sialdia, komunikabideak,... eta berebiziko garrantziagaz non
eta nola garatu lekuko kultura, geure nortasuna, benetako
kohesino soziala emoten deuskuna.

Gure bizietako *eszenatokia* nolakoa izan beharko leikie-
zaren gaineko norbanako hausnarketa zein kolektiboa da
gakoa. Herritarron ezinegona erreala dan arren, geure
inplikazio mailak baxuak dira. Parte-hartzeko tresnak era-
bili eta zure udalerrria horretan badabil, eman laguntza
zure ideiekaz.

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gurekin harremanetan jarri hemen:

komertzial@nuevaeuropa.com

tel.: 94 625 06 06

www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN

LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenen
emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L

Carlos Gangoiti, 15, bajo. Gernika-Lumo (Bizkaia)

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com · www.nuevaeuropa.eus

LEGE GORDAILUA:

BI-153-2015 Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

AURKIBIDEA

ERREPORTAJEA

04 ASTILLEROS DE BERMEO
handitzeko proiektuaren
gertaera

VISIT URDAIBAI

10 URDAIBAI
itsasotik

ELKARRIZKETA

12 LOREA BILBAO IBARRA,
Euskera eta Kulturako Foru
Diputatu

LEKUKO

18 ARTEAGAKO
GAZTELUA

KALERIK KALE

20 JOSE LABAURIA PLAZA,
Bonbardaketan alkatea
izan zanari omenaldia

SAL TSA-PORRU

24 URDAIBAICO TXAKOLINA,
Paisaia baten usain
gozoa eta buketa

BERDEAN

26 BIOTEKNOLOGIA
ura arazteko Arratzun

BETI-JAI

28 ...MADALENARA,
MADALENARA...!



ASTILLEROS DE BERMEO HANDITZEKO PROIEKTUAREN GERTAERA



Portu eta Lamera inguruko auzotarrak Astilleros de Bermeo, dagoen kokapenean, handitzeko proiektuagaz arduratuta dagoz. Beira-zuntzeko enbarkazinoak eraikitzeko jarduera aurrera eraman ahal izateko planteatuta, proiektu honek herrian egonezina sortu dau instituzio eremurarte helduz.

Bermeoko panorama ekonomikoan portura lotutako enpresak betidanik izan dira aberastasun eta enpleguaren iturri. Errealita hau oraindik mantentzen da gaur egungo lan merkatuaren marea bizien erritmora eboluzionatuz. Merkatu hau globalizatua da.

Kontserberak, arrantzaleak, armadoreak, ontziolak... guztiak dira itsasoko enpresariak. Hauek elkarbizi, elkarren osagarri dira eta herriko ekonomiaren alde garrantzitsua sustatzen dabe. Bermeoko bizilagunek honakoa aitortzen dabe: *"ez da egon inoiz arazorik hemen. Portuak bizia emon deusku, aberastasuna... Historikoki ez da egon inongo arazorik ontziolakaz"*.

Historiak kutsu desbardin bat hartzen dau 2009. urtetik aurrera. Orduan Astilleros de Bermeo enpreseari ontziola jarduera handitzeko lizentzia emon eutseen, obra-lizentzia jarduera-lizentzia eskuratzeagaz baldintzatuta, beira-zuntzeko ontziak eraikitzeko asmoz. Momentu hartan alegazio, espediente, txosten, errecurso eta kexak hasi ziren, herria *"banatuta"* geratuz.



GAKOAK

ENPRESEA: Astilleros de Bermeo S.L

PROIEKTUA:

"Egurrezko eta plastikozko enbarkazinoak, beira-zuntzaz sendotuta, eraiki eta konpontzeko jarduerarako eta nabea eraikitzeko proiektua"

KRONOLOGIA:

1989. urtea:

Astilleros de Bermeo S.L-k Bermeoko portuan ontziolako jarduerarako kontsezinoa lortzen dau. 20 urtetarako kontsezinoa zan (2009. urterarte), 10 urte gehiago luzatzeko aukereagaz.

2009. urtea:

- Portu eta Itsas Arazoetarako Zuzendariak, lursail publikoak erabiltzeko 2019. eneko irailaren 9rarteko luza-pena emoten dau.
- Bermeoko Udalak obra-lizentzia jarduera-lizentzia eskuratzegaz baldintzatuta emoten deutso ontziolari.

2010. urtea:

Enpresak, jarduera lizentzia tramitatu barik, handitzeko lanak hasten dauz. Ontziolari moila bihurtzen dau.

- Portua erabiltzeko araudiaren arabaera kota otik 9 metro altzatu daiteke.
- Zigor-espeditentea zabaltzen jako ontziolari, 8000€ko isuna (2015ean 500€ra bajatu zan)
- Lana geldierazten da.

2015. urtea:

Ontziolan lanak barriz hasten dira eta lehen aldiz aurkezten da jarduera proiektua.

- Kaltetutako auzotarrek errekurtsioa aurkezten dabe Arartekoan, Udalari informazio gehiago eskatuz. Obra-lizentzia oraindik ebatzi barik dagoela ezagutzen da. E.A.Eko 3/98 Legeak jarduera lizentzia eukitzera derri-gortzen dau, Udalak obra-lizentzia emoteko orduan. Hau dala ta, lanak geldituta egon behar dira.
- Eusko Jaurlaritzako Azipegituren Zuzendaritzak eraikuntza geldierazten dau, portuko lurren jabea izanda informaziorik ez dauelako jaso.
- Garagarriaren 13an, jarduera proiektua aurkezten da (eraikitze baimenerako 2009. urtetik eskatutako baldintza). Udal teknikariaren oniritzia. Obra-baimenaren barne Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren Komunikazioa dago (2008an tramitazioaren hasieran eskatu zana). Honek azaltzen dau ez direla ontziola mekanikoak eta beraz ez dala behar ikerketa berezirik. 3/98 Legearen arabera, elastomeroen manipulazioa edota material hau erabiltzen dabezen jarduera guztiek ikerketa berezia behar dabe.
- Abuztuaren 5ean, Udal oposizioak, obra-lizentziaren iraungipen espeditentea zabaltzea eskatzen dau, pasatutako denboragatik eta jarduera lizentzia ez tramitatzeagatik. Udalak ez dau espeditentrik zabaltzen.
- Abuztuaren 12an, Astilleros de Bermeo S.L-k aurkeztutako proiektuari EAJ-PNV-k aurkeztutako alegazioa. Ez da onartzen.
- Auzotarren alegazioa, jardueraren osasungarritasun eta arriskutasunagatik. Ez dago ingurumen-inpaktuko txostenik egiteko obligaziorik (barriri be eskatuta 2013ko legea indarrean sartuta). Ez da onartzen alegazioa.

2016. urtea:

- Urtarrila. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren Txostena agertzen da, jarduerak lizentzia eskuratzeko izan beharreko baldintzapenekaz. Ingurumen-inpaktuko txosten berezirik egitearen aukera ez da kontsultatzen. Udalak 2008ko legea hartzen dau kontutan, 2013an legea aldatu zan arren.
 - Auzotarrek segurtasun Udal txosten tekniko idaztea eskatzen dabe.
 - Apirila. Eusko Jaurlaritza, Udal ordezkariak eta auzotarren arteko bilera.
 - Azken espeditentea horrela dino: zenbait neurri zuzentzailea hartuta, plastikozko eta beira-zuntzko enbarkazinoak egiteko ontziola ezarri ahal zala, ohiko ontzigitza ontziolaren kokapenean. Etxeetatik 35 metrotara eta ingurumen-inpaktuko txostenik barik ezta suteen arriskuen gaineko ikerketa barik.
 - Maiatza. Aho batez onartutako mozioa:
 1. Udal korporazioa osotuten daben alderdi guztiek ez dabe begi onez ikusten Astilleros de Bermeo enpresek eskatutako jarduera barria Artza Kaian jartzea.
 2. Portuko plan berezi barria egiteko Eusko Jaurlaritzaren Portu Zuzendaritzagaz berba egiteko konpromisoa.
 3. Jarduera lizentzia emoteko prozesua modu kautelarrean geldiaraztea, neurri zuzentzaileak dauzkan proiektua aurkeztu arte.
 - Izartuk eta auzotarrek txosten juridikoak aurkeztu dabe.
 - Urriak 18, oposizinoko 3 taldeek eskatzen dabe Bizkaiko Aldundiari, Suhiltzaile Zerbitzuari, eta Bermeoko Babes Zibilari txosten bat jardueraren arriskuak baloratzeko eta ingurumen udal ordenantza bat burutzeko tramitazioa martxan jartzeko. Udalak ez dau eskatzen. Ez da erantzunik jaso.
 - Abenduaren 21en, Jarduera baimena ez emoteko alegazioak aurkezten dauz EAJ-PNV-k.
- #### 2017. urtea:
- Maiatza. Auzotarrek Bermeoko Portu Toxikoa Ez Elkartea sortzen dabe.
 - Udalak apirilaren 12an emondako kontsezino baimenari berraztertze errekurtsioak aurkeztu dabez oposizinoko udal talde guztiek.



AUZOTARRAK

Herriaren parte batek, ontziolaren inguruko auzotarrek batez be, Bermeoko Portu Toxikorik ez Elkartearen barne, jarduerak legaltasun, segurtasun bermea, giza-osasuna eta ingurumena errespetatzea zalantzan jartzen dabe.

"Herria banatuta dago. Batzuk pribilegiatuak garela dinoe eta bistak direla eta kexatzen garela...baina guk udalak herriaren segurtasuna eta osasune babestea eskatzen dogu"

"Legeak dino ontziolak ingurumen-inpaktuaren gaineko ikerketa behar dabeela. 3/98 Legearen arabera, eranskinaren 8.3 eta 8.6 puntuetan, ikerketa berezia egin behar dau, besteak beste, elastomeroen manipulazioa egiten dauen edozein jarduerak. Gainera, herriaz arduratzen dan edozein pertsonak ingurumen-inpaktua eskatuko eban, behartuta egon ez arren."

"Material horrek su hartu ezkerok ikaragarria izango zan. Horregatik segurtasuna eskatzen dogu. Udalak eskatu behar dau segurtasunaren gaineko txostena. Ontziola tren geltokiaren ondoan dago. Nondik sartu al da suhiltzaileen kamioia? Udalak eskatu behar dau segurtasun txostena."

"Udalak dino txosten guztiak baikorrak direla. Enpresarioak lizentzia dauko eta udalaren esanetan bere baimena emoteko beharra dauko. Baina txosten baikorrak edo mugarik bakoak izateak ez dau behartzen onarpenari. Udalak neurri gehiago ezarri ahal dauz, herritarak eta ingurukoak babesteko, ontziolaren jarduerak sortu leikezen arriskuen aurrean."

"Enpresarioari zailtasunak kentzen deusela eta geuri jartzen deuzkuela ikusten dogu"

"Ontziola lehen zegoen bezala ikusi gura dogu. Gehitu duena kendu eta betiko ontziola izateagaz pozik geratuko ginatete"

UDALA

Udalak, Astilleros de Bermeo S.L-ri jarduera baimena emon ondoren, herrian sortutako polemikari emon deutso erantzuna komunikatu ofizial baten bitartez. Bertan, ontziolak legea era indarrean dauden planeamenduak betetzen dauzela dino baita Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Osasun sailen eta udal teknikarien txostenak lotesleak direla be. *"Udalak baimena emon behar deutso nahitaez, bestela prebrikazioa egingo geunke"*.

"Herritarren osasuna Bermeoko Udalarentzat garrantzitsuena da, lehentasuna, hain zuzen be." Kezka hau Eusko Jaurlaritzari helarazi eutson. Osasun sailak 2015. urtean jardueraren aldeko txostena burutu eban. 2016.ean Ingurumen sailak bere txosten baikorra emon eban.

"Txosten guztiak baikorrak eta lotesleak direla kontutan hartuta, herritarren plataformaren eskariari erantzuna emoteko modu bakarra Astilleroa beste leku batean kokatzea izango litzateke. Eusko Jaurlaritzak Portuetako plan berezian beste kokapen bat aurreikusi beharko luke." Udalak Eusko Jaurlaritzaren Plan Bereziaren aldaketa bat eskatu deutso behin eta berriz. Jaurlaritzak aztertuko dauela esan dau, bitartean indarrean dagoen planeamendua dagoela dino.

Harrigarria ikusten dau orain gai polemikoa izatea eta ez 2009. urtean. *"EAJren koherentzia eta erantzukizun falta harrizkoa da. Gobernuan zegoenean era batera aritu zan eta orain beste modu batera"*.

Udalak neurri guztiak betetzen direnaren jarraipena zehatza egingo dau. *"Herritarren osasune bermatzen ez dauen eta ingurumena errespetatzen ez dauen jarduerarik ez dogu gura. Baina Osasun eta Ingurumen Sailak eskatutako baldintzak betetzen dira, beraz, lizentzia emon behar deusagu, bestela, prebrikazioa egingo geunke"*.

OPOSIZIOA

EAJ-PNV:

Oposizioaren talderik gehiengodunak horrela dino: *"2009. urtean Astilleros de Bermeo S.L-ri emondako obretarako lizentzia, jarduera lizentzia tramitatzearen arabera dago zan. Tramite hau ez zan hasi 2015. urterarte. Orduan udalan EH Bildu zegoen eta emondako lizentzia 2011. urtean amaitu beharko zan."* Hau dala ta, ontziola jarduera handitzeko lizentzia eta obretarako baimena deusezte eta eraginik gabe uztea eskatu deutso udalari. 2017ko maiatzaren 19an egindako alegazioak honakoak izan dira:
Baimenaren deuseztasuna, oinarrizko izapide bat egin

GAUTEGIZ ARTEAGA
pausoz pauso



BIZITZEKO
HERRIA

ez izanagatik: ingurugiro-ebaluazioa. (Abenduaren 9ko, ingurugiro-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera). *"Ezin daiteke esan legea aplikagarria ez dela, obretarako baimena legea indarrean sartu baino lehen eskatu izateagatik. Izan be, jarduera espedientea 2015.ean hasi zan tramititzen eta ez 2009.enean".*

Jardueraren kokapenaren legez kontratakotasuna. Azaroaren 30eko, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko 2141/1961 Dekretuaren 4. Artikuluan jasotzen dan bezala, jarduera arriskutsuak eta osasungaitzen kasuetan, gutxienez, hirigunetik 2000 metrotara kokatu behar dira. *"Horregatik, Bermeoko erdigunean, etxebizitzetatik 50 metrotara ontziola bat egiteko baimena ilegal da".*

Proiektuaren gabeziak.

Jarduera proiektuak zenbat itsasontzi eta zein motatakoak egin ahal izango diren eta zein dan bere ekoizte-prozedura azaltzen dauen dokumentua izan behar dau. *"Ez da aurkitu produkzio prozesuaren dokumenturik eta Udalak ez deutso eskatu Astilleros de Bermeo S.L-ri."*

Obretarako baimenaren deuseztasuna

"Jarduera baimena deuseza izanda, honen ondorioz emondako obretarako baimena be deusez izango litzateke, Ingurugiroaren Babes Orokorren, otsailaren 27ko, 3/1998 euskal Legearen arabera".

IZARTU:

Udal talde honek (hautesleen taldea) emon ahal izan dauzen pausu guztiak emon dauzela azaldu dau prozesua deusezteko eta guztia hasieratik berraztea eskatzen dau. Gauzak hasieratik modu zuzenean egiteko, *"inori kalte egin barik"*. Udal talde honek 2017ko apirilaren 10ean aurkeztutako mozioak horrela dino:

"Udal Batzordeak erabakia luzatzea eta jarduera handitzea ezta obra-lizentzia EZ emotea, gure adostasuna daukon "Astillero Toxikorik Ez" kolektiboak aurkeztutako txostenaren kontrako txostena behar dan moduan argitu arte. "

"Beste txosten juridiko bat eskatzen dogu, jarduera lizentzia ez onarteko mozioan agertutako argudioak ikertzeko. Beste arrazoen artean, etxebizitzetik eta erdigunearekiko distantzia ez da nahikoa, ez dau era honetako jarduera batek izan beharreko babeseko distantziarik gordetzen."

"Hartu beharreko erabakia geldi eta ingurumen arloan

espezializatutako abokatu bufete bat kontratatzea eskatzen dogu, berme guztiak arguadiatu ahal izateko, beira zuntzeko plastikoagaz sendotutako ontziak egin eta konpontzeko jarduera lizentzia ezeztatzea".

"Era berean, jarduera honen kokapenari dagokionez, ordenaziotik kanpo geratuko zan hemendik eta gutxira, Portuaren Ordenazioaren Plan Bereziaren Modifikazio Puntualaren espediente barria tramititzearen arabera, portuko jarduerak herriko gunean hobeto integratzeko".

"Aldaketak eta hauen eraginak enpresaren arduradunari idatziz komunikatzea eskatzen dogu, horrela berak proiektuak suposatzen dauzen inbertsioak egin ala ez egin baloratzeko".

GUZAN:


Udal talde honek ontziolari kokapen ezberdin bat emotearen alde agertu dira. Honakoa defendatzen dabe:

"Herritarren ongizateagaz bateraezinak diran aktibitate industrialak herrigunetik kanpo gura doguz, eta helburu hau lortzeko lanean jarraituko dogu. Ingurumen ordenantza garatzea proposatu dogu mota honetako aktibitateak hobeto erregulatzeko".

"2004tik aurrera herriak kontserbera eta industria orokorrean herri erditik poligonoetara ateratzeko apostue egin eban. Hortik hasita, ez geuntozan honelako ontziola bati inongo zentzurik ikusten, geure herri erdian eta gitxiago etxeetatik 40 metrotara. Etorkizunerako landu gura genduan Bermeorako, ontziola horrentzako kokapen barriaren aldeko apostu bat egin gendun. Portu komertzial handia daukagu, etxeetatik urrun jartzeko aukera."

"Beste pausu batzuen artean, Udal oposizio talde guztiak eta kexkaturik zeuden herritarrek, guztion artean mozi bat adostu gendun. Bertan, leku hori ez genuela aproposa ikusten aktibitate horrentzat sinatu gendun, geure eskuetan zegoen guztia egingo gendula (legearen barruan), kokapen barri bat bilatzeko ahaleginetan. Mozio hori Osoko Bilkurak aho batez berretsi eban".

"Azken pausua. Ugal gobernu taldeak lizentzia eman eutsola ezagutu gendunean eman gendun. Erabaki horren kontrako errekurtsio bat aurkeztu gendun udalean".



IBILBIDE HISTORIKOAK URDAIBAI 2017

“BUELTATU GEURE
IRAGANARA ETA
HISTORIAN MURGIL
ZAITEZ”

ERRESERBATU HEMEN ZURE BISITA:
ibilbideak@bizkaia.eus - 688 856 689



URDAIBAICO ONDARE HISTORIKORA BISITA GIDATUAK

Bizkaiko Foru Aldundiak Arrolako *Oppidum*-aren aztarnategira, Ereñozarko Gaztelura, Foruko Erromatar Herrixkara eta Tribisburuko Erromatar Nekropoliaren aztarnategi arkeologiko baliotsuetara hurbiltzeko aukera ezberdinak eskeintzen dauz.

Bisita gidatuak garagarri eta abuztuan, Urdaibaiko ondare historikoaren bidez geure historia ezagutzeko ezinbestekoak. Aurton, bisita bereziak be eskeintzen dira: oinezko bisitak, aztarnategien arkeologoen eskutik bisita gidatuak, keinu hizkuntzakoak; tokiko euskararen ezagutza zabaltzeko bisitak, ingurugiroa ezagutzeko bisita naturalak edota Katillotxura, esperientzia megalitikoak.

ARROLAKO OPPIDUM-A, GOTORLEKU INDIGENA

Arrola mendiaren gailur boteretsuan (537m), 2000 urtetik gorako herrixka indigena hau bizirik iraun dauen historiaren zati bat da eta geure arbasoen bizimodua erakusten deusku. Bere harresia sigi-saga egiten dau eta Burdin Aroko babeserako gotorleku sendo honetatik zehar eramaten gaitu honek.

EREÑOZARKO SAN MIGEL, ERDI AROKO GAILURRA

Ereño herriaren gainean, bista zoragarriko gune pribilegiatuan, bere harresien aztarnetan, bere paisaian eta legendatan, geure historiaren sekretuak gordetzen dira. Bizkaiko Foru Aldundiak burututako ikerketa arkeologikoak Erdi Arotik hasi eta gaur egunerarteko sekuentzia historikoa egiaztatzen dau.

FORU, ERROMA URDAIBAIN

Tourseko San Martin eleizaren zimenduek Urdaibaiko historiaren 2000 urte gordetzen dabez. Bertan, antxinako nekropoliak eta erromatar garaiko eraikuntzak daude. Kristalezko lurzoruaren bitartez Bizkaiko Foru Aldundiak aurrera eramandako ikerketa arkeologikoen aurkikuntzak ikus daitezke. Paduretan agerian geratzen dan erromatar herrixkagaz dago lotuta tenplua.

TRIBISBURU, ARKEOLOGI SEKRETUAK SOLLUBE MENDIAN

Erromatar garaiko errusketa nekropolia da, Sollube mendia-bularrean, Bermeo eta Busturia herrien artean, kizkurtuta, denboran zehar biziraun dauena. Ikerketek iraganeko hileta ohituren barri emoten dabe, geure historiaren ezagutza aberastuz. Aztarnategia, gaur egun indusketa lanetan, K.o I. eta III. mende bitartekoa da. Bizkaian ezaugarri hauek dauzkan bakarra da.

BERMEOKO PORTUA:

AUKERA BARRIAK GUNE ESTRATEGIKOAN

Euskadin kirol-nautikoaren jarduerak izan dauen hazkuntzak eta Euskal kostaldean bizi izandako garapen turistikoak, portuen eta portuetako instalazioen eraikuntza edota berrantolaketa ekarri dabe, hauei itsasoko-kirol izaera emoteko asmoz, aisialdiko eta kalidadezko turismoari lotuta.

Honen adibide Bermeo dogu. Bertan agerian dago ohiko merkatal, industria eta arrantza jarduerak bat egiten dabela itsas-kirol jardueraren sustapenagaz eta gorantza doan turismo nautikoagaz.

Euskal kirol portuak modernoak eta eraginkorrak dira, eta atzerriko gero eta nabigatzaile gehiago bisitatzen gaitue. Geure kostaldean nabigatzea esperientzia on bat dala zabalduz doa, baita geure instalazioetan lo egitearena be eta gu bisitatzeko interesa areagotuz doa.

Udan mugimendu gehiago dago eta hasiera baten atzerritik etorritako enbarkazioak frantziatik etorten baziran be, gaur egun Ingalaterratik, Irlandarik, Holandarik, Belgikatik, Alemaniatic edota Danimarkatik datoz.

Bestalde, gero eta euskaldun gehiagok egiten dabe itsas-jarduerak geure portuetan, eta turismo nautikoa indarra hartzen doala ikusten dogu, jarduera anitzekaz.

BERMEO, GUNE ESTRATEGIKOA MATXITXAKOKO LURMUTURRAREN ONDOAN

Bermeoko egoerak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren erdian, eta honen kostaldeak, Gaztelugatxeko San Juan, Akatz eta Izaro irla erakargarriekaz, turismo nautikoak daukon indarra jartzen dabe agerian.

2006. urtean Portuzarran egindako birmoldaketaren ondoren, itsas-kirol erabilpenetarako egokitzeko asmoz, eta 2015ean enbarkazioak hartzeko espazio faltaren aurrean, Euskadiko Kirol Portuan-EKP-n bidarientzako pantalan bat ezartzea planteatu genduan. Pantalan honek, 10-14 metro bitarteko eta 4 metroko errunako 8 enbarkazinoa hartzeko kapazidadea dauko. Portuzarreko kanpoaldean ezarri zan pantalana eta argi eta ur-hartuneak dauzka. 6. zerrendako bidaiarien enbarkazioen ontziratze eta lehorreratzeko erabili daiteke. Horrela, izotz fabrikaren aurreko pantalana aingurulekuko erabiltzaileentzako prest geratzen da.

Pantalana uda ostean desmontau egiten da eta sasoi honen hasieran barriri jartzen da.

2016.urtean pantalan honek 241 enbarkazino hartu ebazan, 329 biderrez bertan lo egiten geratu ziren hauek. Eta egonaldi bakoitzaren batez bestekoa 1,37 egunekoa izan da.

Aurton aurreikuspenak onak dira. Aurreko urteetan 5000 pertsona bisitatu eben Euskadi itsasotik. Euskadiko Kirol Portuak-EKP-k bultzatutako eta ezarritako ekimen barriekaz, bisitak igotzea espero dogu. Zentzu honetan, La Rochelle-eko (Yacht Club Classique) ontzi klasikoen estropada nabarmentzen da, Bermeotik igaro eta Getxon amaituko dana. Donejakue bidea itsasotik egiten dauen II Travesía "Navega El Camino" be, Hondarribiatik irten eta Bermeora heltzen da, bertatik bigarren etapa hasiko da.



URDAIBAI ITSASOTIK

Kostaldekko lurralde bat itsasotik bisitatzea, esperientzia aberasgarria da, guztiz gomendagarria. Horrela, ohiko ibilbideak eskeintzen deuskuen ikuspegiagaz alderatuta ikuskizun erabat desbardinaz gozatzeko aukera emoten deusku. Lur sendoak aterpe, harrera eta ibilbide amaieraren ikuspuntua eskeintzen dau. Itsasoa be bide bat dela agertuz, beste ikuspegitik ongiatorria emoten deuskuen herri eta parajetara zuzendutako ibilbidea, hain zuzen be. Gehientzako ikuspegi barria da hau, baina, halanda be nabigazioaren historia bezain zaharra. Itsasotik portura sartzekak, garai honetan askatasun sentzazino bizigarria emoten dau.

Urdaibai gune geografiko txikia izan arren, biodibertsitate handia gordetzen dau. Hauxe da bere aberastasun nabarmenena. Dana dago eskura, aukeratutako ibilbidea zeinahia izanda be begizatzen dan paisaia zoragarrien bariedadea guztiz atsegina da. Eskualdeko gurgil zoro hau, itsasotik ikusita be errepikatzen da.

Mundaka, Bermeo, Elantxobe edo Eatik itsasoratzeak kostaldea agerian jartzen deusku, aldapatsua, edertasun

gogorrrakoa, Matxitxako eta Elantxobe arteko itsas bidaiaren ñabardura guztiak bistara ipiniz. Itsasargi zaharraren dorreak, harkaitzak itsasoan barneratzean utzitako azken puntan zutunik, nabigatzaileei abisuak emoteko gunea zala gogoratzen dau. Seinale batzuk gizonak sortutakoak eta beste batzuk erreferentzia naturalak ziran.

Lurmuturraren puntak, Bermeorantza nabigatzerakoan, Matxitxakoko senaia ixten dau agerian, itsasoak mendeetan zehar landutako harribilezko ur lasaiak, "Arribolas" izeneko guneari izena emonez.

Bermeok, Urdaibaiko portu nagusiak, dinamikoa eta anitza, itsasora zuzentzen dau bere aurpegirik onena, naturalarena. Portuzarran lehorreratzean, mendeetan zehar arrantzale giroaz blai izandako txokoan, herria zeharkatzeko hasiera ezin hobea da.

Izaro irlak, silueta eta irudi ezberdinen errepertorioa zabaltzen dau, nabigatzaileen aurrean soilik, itsas txorien algaraz lagunduta, irlaren "aurpegi izkutua" zeharkatuz. Ogoñoiko lurmuturraren sekulako itsaslabarrak, Laga hondartza oinetan, mendebaldeko kostaldeagaz

**TABERNA
AUZOKOA**

GERNIKA-LUMO

Tel. 94 625 16 66




"Kalitatea bai, baina giro gozoan gure nagusientzat"

	Gaiak	Ez Gaiak
	1.660 €/hilabetea	1.950 €/hilabetea


BIOTZ SAKRATU
 RESIDENCIA - EGORTZA
Proteccion Medioambiental de la Inmóvil de Orografía





Deitu arazo berririk
 c/ Sarrua 5, 48360 Mundaka (Bizkaia)
 Tel: 94 687 62 32
www.residenciabiotzsakratu.com






alderatuta, ia erregu eske, kontrako ikuspuntua eskeintzen dau: Elantxobeko sorpresa bertikala, hain zuzen be. Hemen, itsasoa da protagonista, eta bere portu apartekoa, grabitate-zentroa.

Mendebalderantz goaz, punta Ermintxotik buelta emonez, Busturialdeko kostako mugak zeharkatzeko asmoz eta Eako porturarte heltzeko. Ontziratzeke gune txiki eta ederra da hau, bere landen berdetasunez inguratuta. Bedarona eta Ogellako kostaldea, marearteko zabalgunea bezalako gune ederrekaz, balio ekologiko handienetakoa da Bizkaian.

Estuarioaren sarreran, gaur egun surflari eta antxinan beldurgarria zan barra zeharkatuz, kostako dekoratuak aldatzen doaz. Etengabe agertzen dira, Mundakako portuko bokaletik, bere moilaren irudi sendoek kanalari egiten deutse aurre, Txatxarramendi irlararte, Sukarrietan. Baborretik, Laidako hondartza zabaltzen da, nabigatzaileei atsedena hartzeko gonbidapena eginez.

Marea aprobetxatuz, bidaiak itsasadarrara eramaten dau. Hemen, paisaia guztiz desbardina da. Landa berdeetako bailaratik zehar nabigatzen da, kanalako ur urdinetan barne edota marearteko areeta aldakor eta leunen barne.

Busturiak eta Kanalak, bere landa izaera erakusten deutse itsasadarrari. Muruetara zuzentzen garen heinean, nabigatzeko azken gunea, lasaitasun giroak inguratzen gaitu. Hemen soinu, kolore eta usan gozoak, paduraren indarra sentierazten gaitue. Padura ehundaka hegaztien gordelekua da.

Urdaibai itsasotik deskubritzeak, paisaia zoragarriez gain txoko bitxi eta ederrak agertzen dauz. Hauetan, natura eta giza jarduerak elkartzen dira, modu orekatu eta aberasgarrian.

Oka estuarioaren ezaugarri fisikoek itsasotik bisitatzeko erraztasunak emoten dauz, garraitzeko modu aproposa dela erakutsiz. Honi esker, ertz bien arteko lotura eta joan-etorriak laburtu egiten dira.

Ekualdeak kalidadezko zerbitzu eskaintza interesgarria eskeintzen dau, era honetako ibilbide mota guztiak egin ahal izateko: bisita gidatuak edota kostaldeko puntu ezberdinetara txangoak, kasuan kasu. Urdaibai itsasotik ezagutzea aukera ederra da, bere ikuspuntu naturalena da eta itsasoa.

Indigena bizia... Urdaibain orain 2500 urte

Arrola

Arrolako Oppidum-aren Interpretazio Zentroa



Loiola Auzoa 4 / 48383 Arratzu (Bizkaia)
Erreserbak: 94 625 06 06 / 634 24 37 62

LOREA BILBAO IBARRA

Euskera eta Kulturako Foru Diputatua

k

ilbotarra da, baina Arratian ditu erroak Lorea Bilbaok, Euskera eta Kulturako foru diputaduak. Ondo ezagutzen dau gure identitatea, eta buru-belarri

defendatzen dau. Foru Aldundiko sail enblematikoaren buruak ardatz honeek nabarmendu deuskuz: lana, ideia argiak, Bizkaitarrak kontuan hartzea eta gizarte-garapena.



Zure ikuspegitik, zer da euskera eta kulturako diputadu izatea eta gure identidadearen oinarri nagusiak jorratzea?

Sekulako zortea da; izan be, hiru alor horreek landu izan dodaz egunerokoan –euskerea, kultura eta kirola–, eta horreetan sentiduten naz benetan gustura. Hezkuntza munduan eta euskararen munduetan murgilduta ibilitakoa naz, eta kultura eta kirola oso presente euki dodaz beti. Gustuko dodan eremuan nabil, gogoz nago hau lantzeko, eroso sentiduten naz, eta, gainera, garrantzitsua da niretzat hirurak sustatzea, odolean daroadaz eta; itzela da hori. Beste alde batetik, ardura handia da, eguneroko sozialagaz estu lotuta dagoz-eta, beste arlo batzuk baino estuago. Erantzukizun handia Bizkaiko herritarren aurrean: Garapen pertsonala zein taldekoa, bizikidetzeta eta gizarte kohesioa sendotzera bideratutako hizkuntza-, kultura- eta kirol-politikak garatu, sortu eta hauspotu behar dodaz. Geure geureak doguzen hiru esparru honeek oso lotuta dagoz identidadeagaz, eta garapen sozialagaz be bai. Gizarte guztiek konpartiduten doguz hainbat alderdi, baina nik uste dot hiru eremu honeek izan daitekezala gure bereizgarriak, hiru eremu honeen bidez egin geinkela geure txokoa munduan, eta gure horretatik abiatuta ipini gaitkezala hartu-emonetan besteakaz.

Eta Bizkaiak zer emon leikio Euskadiri?

Bizkaitar izatearen aberastasuna eta bizkaitartasunaren aportazioa. Ez gara desbardinak, ez geunke hori azpimarratu behar. Administrazioaren mugak baino harago doa kultura. Gu euskal kultura gara. Bizkaian, jakina, geuretik bultzatu behar dogu kultura, geure alkartegintzatik. Badaukaguz geure ezaugarri bereziak, eta herri adina bizimodu dago, jakina. Ni neu Dimako baserri-girotik nator, eta baserri guztiek daukie euren modua. Hizkuntzea bera be aldatzen da baserriz baserri, atez ate. Ikuspegi kultural batzuk sano garrantzitsuak dira auzo baten, eta beste auzo batzutan, barriz, ez, nahiz eta herri berean egon. Kostakoak eta barrualdekoak be ez gara bardinak, baina kontua ez da desbardintasunen bila ibiltea. Danon artean herria egitean dago gakoa.

Euskerearen aniztasuna ere sustatu gura dozu?

Bai. Euskerea sano aberatsa da, eta sarritan ez gara behar dan moduan konturatzen horregaz. Bestalde, hizkuntza normalizatea, edozein dala be hizkuntza hori, lan handia da, eta horretaz be kostata konturatzen gara. Sarritan, kontrajarriztat jotzen doguz euskalkiak eta aldaera batua, bizkaiera eta euskera batua, gauza desbardinak balira lez. Ez dogu ikusten biak dirala euskerea, eta horregaitik

saiatzen gara desbardintasunak azpimarratzen: holan, ez dogu hizkuntza komunik eregiko. Zer egin behar dogu, orduan? Bada, euskerearen aldaera batu, normalizatu eta garatua lortu. Eta, gainera, euskalki guztietako osogaiak txertatu aldaera batu horren barruan. Zer emon geinkio guk batuari? Bada, bizkaiera be izatea estandarren parte. Batua eregiteko, erdialdeko euskalkiak erabili ziren gehien bat, eta bizkaiera ez da horreen modukoa. Guk, beraz, batua aberastu behar dogu; ez doguz biak bereizi behar, baizik eta alkar osotu daitezala.

Erabili nahi izatean eta erabiltzean daukagu erronka handiena, norberak berba egin daijala berak dakian euskerea. Euskerarik okerrenea bestea da, erabilten ez dana, horixe esaten dau nire lagun min batek eta arrazoiak dauka. Bizkaiera, bai; batua be bai. Datorren urtean beteko dira 50 urte euskera batua sortu zanetik. Zer egin geinke bizkaitarrok? Bada, hausnartu behar dogu ea zelan egon leitekean bizkaiera presenteago gure eredu batu horretan, eta zelan aberastu ahal dauen geureak guztiona. Eta zelan sentidu gaitkezan danok, bizkaitarrok eta bizkaitarrak ez diranak, eredu estandar horren parte, eta zelan prestigiatu daikegun; izan be, eredu batua guztiz ezinbestekoa da hizkuntza normalizatua lortu gura badogu.



Erabili nahi izatean eta erabiltzean daukagu erronka handiena, norberak berba egin daijala berak dakian euskerea.

Zelan bizi dozu Busturialdea?

Maila personalean, Busturialdea opor egunekaz lotzean dot, eguraldi onaz, lasaitasunaz, eta ondo paseteaz... Baina alde profesionalari jagokonez, aukera aniztasunaz eta ugaritasunaz lotzean dot, ganera Aldundian hasi nintzanean, haraxe joan nintzan neure lehen bisita ofiziala egitera. Tribisburuko ondarera joan nintzan, eta, beraz, leku berezian gordeko dot hori beti. Bi mailatan ezagutzen dozuz lekuak, persona lez eta instituzinoaren ordezkari lez; halanda ze, gura dozu proiektuak funtzionau dagian eta jenteak ezagutu eta deskubridu dagian, maila personalean edo gizarteko kide dan aldetik; eta, gero, transmitidutea. Izan be, harro sentiarazoten zaituen hori transmitiduten dozu, eta besteei ezagutarazo gura deutsezu, eurek be gozau dagien. Horixe da gure helburua.



Kultur azpiegiturek dirua dakarre eta lana sortzen dabe. Horrez gainera, beste alorrek ekarten ez deuskuen zeozer ematen deusku kultureak: identidadea, kohesinoa, ezagutza...

Zer dan Busturialdea? Ibilbide osasuntsuak, arrauna, eskubaloia, saskibaloia, pilota, zesta-puntea, ibilbide historikoak... asko eskeintzen deusku, bertara hurbilduteko ez jatzu atxakirik faltako!

Eta Gerniak zer erakusten dau, kulturearen ikuspegitik? Zer egin gura dozue hemen?

Gernikan faktore asko dagoz: Arbola, Batzar Etxea... herriaren sinbolo dira. Museoak be badagoz, adibidez: Euskal Herria Museoa, hau da, gure identidadearen, kulturearen eta hizkuntzaren gordelekua; eta Bakearen Museoa, sekula gertatu behar ez oroitua eta beste gizarte bat eraikitzeko indartuko gaituena. Ezin ahaztu Jai Alai frontoia, Docomomo fundazioak bere balio arkitektonikoa aitortu deusana eta herri kirolari eusten deusana azpiegiturea eta hauspoa, guztiz funtsezkoa. Ehundura soziala eta alkarteak daukaz. Eta Seber Altube koraleko umeen ahotsen soinua ere entzuten da Gernikako kaleetan, Gaudeamus eta Andra Mari Koraleko ahotsak be hortxe dagoz, eta bakizu? Irailaren 22an horreik danak batera Bilboko Koralez batera Santa Maria elizan kontzertua eskeiniko *"Gernika 80 urte. Bakearen musika gerraren urteurrenean"*

Eta Bermeo zer da?

Bermeo kresala da, eta esportatu egin behar dau kresal hori. Iaz Washingtonera joan ginan Smithsonian Folklife festibalera, eta bertan izan zan Bermeoko saregile bat, Marielen. Bermeoko kresala eta harrotasuna eroan zituan. Marielenen postura agertu ziran guztiek ondo baino hobeto ikasi eben non dagoan Bermeo, euskararen doinua zelangoa dan, zer dan sare bat, zer dan arrantza... Bermeok kresala dauka eta bizi-bizia da. Hantxe dago Arrantzaleen Museoa, arraun-talde bikain bat, iaz sekulako pozak eman euskuzana eta aurten be seguru... Itsasora begira dagoen herria da, eta, horregaitik, kanpora aterateko joerea dauka, ez dago bere baitara bilduta. Aldi berean, bermeotarrek badakie kanpotik datorrenari harrera ona egiten be. Gaitasun horreek sano garrantzitsuak dira kulturea ehuntzeko. Bermeoko euskerea bera be berezia da. Nire eretziz, herriak badauka adierazoteko gaitasuna hiru arloetan: kulturean, hizkuntzan eta kirolean. Bermeok badauka herri-izaerea.

Kultureak zer emoten deutso garapen sozialari eta ekonomikoari?

Adibidetxo bat emongo deusut, Foru Liburutegian euro bat inbertidu, eta, ordainetan, hiru jasoten doguz. Kultur eta kirol ekitaldiak antolatzen doguzenean zeri begiratzen deusogu? onura ekonomikoari erreparatzen deutsegu, eta hori normala da. Horregaz batera nik aztertu gura dot zelako arrastoa ixten daben halako ekitaldiek beste maila batzuetan be, zer ikasten dogun horreei esker. Kultur azpiegiturek dirua dakarre, dirua emoten dabe, eta lana sortzen dabe; zorionez holan da eta hori ezin da ukatu. Baina, horrez gainera, beste alorrek ekarten ez deuskuen zeozer ematen deusku kultureak: identidadea, kohesinoa, ezagutza... Ezagutza barik ez dogu aurrera egingo. Bizkaiko kultureak, gizarte-ehundurak eta alkartegintzak jakintza dakarre, eta balio kualitatibo hori sano garrantzitsua da, horri esker sentiduten gara-ta persona. Nik ez dot gura zenbakien gizarte bat, personen gizarte bat baizik. Eta gizarte horretan gura dodaz persona jantziak, interesak daukiezanak, proiektuetara batzen diranak... ahalegintzen diranak.

Bizkaiko gizarteak badauka etorkizuna. Iruditzen jat arreta handiagoa emon behar deusagula kulturearen ekarpenari. Esate baterako, auzolana bera, hain gauza ezaguna izanda, Euskadiko kulturearen parte da: holan egiten doguz guk gauzak. Zergaitik daukaguz hainbeste alkarte? Bada, geure kulturearen parte diralako. Zergaitik fidatzen gara jenteagaz? Zergaitik sinisten dogu euskaldunaren berbea? Bada, geure kulturearen parte dalako.

Zelan ikusten dozu euskal kulturearen etorkizuna?

Uste dot nazinoartera zabaldu behar dogula gehiago garena eta egiten doguna, euskal kulturea, paleolitikotik hasi eta gaur arteko deskubridu dogun eta garen hori.

Zelan ikusten gaituen? Nik uste dot eredu garala hainbat gauzatan. Esate baterako, Estatu Batuetara joan ginan Smithsonian jaialdiaren harira, eta hantxe konturatu nintzan oso erakargarria iruditzen jakela gure gaitasun hori, arlo modernoa eta tradizionala buztartzeko trebetasun hori. Badakigu aspaldiko kontuak eta gauza barriak buztartzen: Arkeologia Museoa eta Museo Etnografikoa daukaguz,



*Jenteak ondarea ezagutu
eta deskubridu dagian,
maila personalean
edo gizarteko kide
dan aldetik; eta, gero,
transmitidutea. Horixe da
gure helburua.*

bai, baina handik ordu laurdenera dagoz Guggenheim Museoa eta Arte Ederren Museoa. Baina kontua ez da hur dagozala eta kito. Kontua da gai garala balioa emoteko Museo Arkeologikoari, Euskal Museoari, El Pobal burdinolari, Enkarterriri, Euskal Herria Museoari, Bakearen Museoari, eta, aldi berean, Guggenheim eta Arte Ederren Museoa jagoten doguzala. Bikain buztartzen doguz danak, badakigu balio dabela, eta halaxe erakusten dogu. Eta horrek arreteka pizten dau kanpoan.

Europako hizkuntza zaharrenetakoa da euskerea, baina geuk egunero erabilten dogu, eta gehiago erabiltea gura dogu. Beste alde batetik, euskal biztanleak buru-belarri dabilz euskerea berreskuratzen, normalizetan eta indartzen, mundu modernoan eta inguru digitalean be erabili daiten, eta hori guztia eredugarria da. Europako hizkuntzarik zaharrena oso presente dago inguru digitalean. Kirolagaz, beste horrenbeste. Herri kirolak sasoi onean dagoz (arrauna, pilota, aizkorea), hemengo mendigoizaleak Himalayara heltzen dira eta euskeraz esaten dabe lehenengo berbea. Eremu guztietan daukaguz ereduak. Surfa, hipika, golfa, Athletic... edota koruak, musika popa, rocka... hainbat idazle ditugu



Lorea Bilbao, Euskera eta Kulturako Diputatua (BFA), Andoni Iturbe, Kultura Zuzendaria (BFA) eta Juanjo Cepeda, arkeologoa, indusketen zuzendaria, Tribisburun.

erreferente nazioartean, euskaraz idatzi eta inglesera edo japoniarrera itzultzen dira euren lanak, hori handia da! Eremu guztietan buztartzen doguz antzinatasuna, tradizioa, identitatea eta modernotasuna, gaur egungoan kokatzeko eta eredu izateko asmoagaz. Goi-mailako industriak daukaguz, eta punta-puntakoak dira gure enpresa kulturalak, linguistikoak eta kirol arlokoak.

Zein beste lurralde edo kulturaren parekoak gara?

Europako kultura guztien artean itzelezko antza daukagu, gauza baten edo bestean. Ez gara hain desbardinak eta gainera gero eta harreman eta lotura gehiago dago. Alboan daukazunakaz antzekotasunak bilatzen badozuz, sinergiak sortzen dozuz, eta bardin gertatzen da beste kultura edo gizarte batez antzekotasunak bilatzen badozuz. Uste dot Euskadi antzekotasun horreek topau behar dituala, ikusteko zein beste herrialderen antzera egiten doguzan gauzak, eta zein ekarpen egin geinken hor, oinarri komunetik abiatuta. Zerri erreparatu behar deusagun? Bada, orain arte garatu dogunari, eta, jakina, aldatu beharko geunkeanari; baina, nire eretziz, herri honek berak izan behar dau gure erreferentea, eta beste batzuegandik be ahal doguna ikasi, zelan ez!

Hezkuntza-sistemara eroango dozue ikerketa arkeologikoei eta ondareari buruzko azterketei esker lortu dogun jakintza historiko eta kulturala, belaunaldi barriek be ezagutu dagien?

Hasteko, hemen bizi garen guztiok egin behar doguna da daukagunari balioa emon. Uste dot ondo gabilzala: pozik gagoz garenagaz eta daukagunagaz. Gehiago sakondu behar dogun? Hobeto balorau behar dogun? Bai, aurrerexi batzuk kendu behar doguz. Eta seguru hezkuntza sistemagaz loturak estutu beharko geunkezala, eta eurei be esku bat bota, nago sarritan exigentzia lartxo jartzen ete dogun eskolaren gain. Guztion zeregina da, eskolarena, gurasoena, familiena, administrazioena zelan ez, alkarteena, danok batera egin behar dogu tira.

Eta bai, Hezkuntza-sistemea funtsezkoa da. Hasteko, etxean eta inguruan transmitidu behar dira gauzak. Baina umeez eskolan ematen ditue ordu gehien, eta eskolan eskura euki behar dabe gure herriari buruzko jakintza sozio-kultural hori guztia. Eta funtsezkoa da nire eretxian, magisteritza-eskoletan, alderdi humanista, sozial eta kultural hori bultzatzea, egiten dira gauzak, ikasgaietan be aldaketak egon dira, orain antropologia sozio-kulturala be irakasten da, baina funtsezkoa da irakasleen hasierako prestakuntza, trebakuntza, sensibilitateak garatzea. Hezkuntza-sistemea eta kultur sistemea hurrago egon behar dira, hori sustatu behar dogu. Esate baterako, kirolaren gaia oso artikulauta dago, Eskola Kirolaren bidez. Umeez eskola orduetan jarduera fisikoa eta kirola egiten dabe baina eskolatikk urtenda be antolatuta dago kirola egiten jarraitu dagien. Beharbada, antzeko zeozer prestatu behar geunke kulturearen eremuan.

Kultura Sailak zein ikuspegi dauka Guggenheim Urdaibai proiektuaren inguruan?

Gitxien-gitxienik, danon artean hausnartu behar geunke. Guggenheimek 20 urte bete ditu arrakasta betean, eta etorkizunerako estrategia definitzeko momentua da. Estrategia horrek eta erabakitzen denak dagoena osotu beharko leuke, aberastu eta ilusinoa piztu. Guggenheimek

arrakasta dauka orain, baina hasieran ez zan holan izan: batzuk baino ez eben sinistu proiektu haretan. Gaur zeozer barria sortzekotan sortzen dogun horrek dagoenaren osogarria izan behar dau, ilusinoa piztu, Bizkaia aberastu behar dau, eta eredu bihurtu.

Zein erronka, ideia, gai... landu gurako zeunke legegintzaldi honetan?

Hainbat gauza egin gura dodaz; besteak beste, Euskal Museoa birpentsau. Euskal Museoaren ikurra (Mikeldi idoloa) zaharberritu dogu, eta orain Klaustroa estaliko dogu, beste era bateko ekitaldiak be antolatu ahal izateko eta museoaren eskaintza erakargarriago egiteko. Euskal Museoaren eduki guztiak birpentsau gurako neukez, eta proiektu museografiko sendo bat eregi. Modu horretan, Euskal Museoa izango da euskal kulturara sartzeko atea eta erreferentea. Bertatik helduko gara eskualde guztietako museoetara. Nire ikuspegitik, atea Euskal Museoa da, bai,

baina leiho mordo bat dauka: Gernikako Euskal Herria Museoa, El Pobal burdinola, Enkarterri, Berreginen Museoa... Baina Euskal Museoa izan behar da sarrerea, ha izan behar da plano orokorra. Gero, hortik aztertuko doguz argazkiaren xehetasunak. Horixe da nire zeregin nagusietako bat.

Badaukat beste ilusino handi bat: BFAk bere lana euskeraz egitea normaltasunez, egunerokoan, zerbitzua euskaraz eskaintzetik haratago doa hori; eta euskerea gehiago erabili daitela eremu guztietan, askoz gehiago erabili be. Gizarteko eragileakaz

alkarlanean gabilz, mundu sozio-ekonomikoa eta lan-munduan euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko, kirol-federazioakaz be bai, kirolaren munduan euskerea erabili daiten. Beste alde batetik, gustauko jatan Bizkaia erreferentea izatea euskerearentzat eta Europako beste hizkuntzentzat. Badago nondik hasi: besteak beste, Euskararen Etxean dogun interpretazio-zentroa berrantolatze prozesuari ekin deutsogu eta bagoaz apurka-apurka...



*Gizarteko eragileakaz
alkarlanean gabilz, mundu
sozioekonomikoa
eta lan-munduan
euskararen erabilera
eta presentzia areagotzeko,
kirol-federazioakaz be
bai, kirolaren munduan
euskerea erabili daiten.*




DECOR HOGAR INIGO
Viste tu hogar

PROYECTOS - REFORMAS - COORDINACIÓN DE GREMIOS

Tapicería / Cortinas / Alfombras / Moquetas /
Papel pintado / Pintura personalizada por ordenador
Irakasti, 19 / Tel. 94 618 83 43 Bermeo
decorhogar@telefonica.net

Area de descanso / Colchones /
Somieres / Viscoelásticos
Irakasti, 19 / Tel. 94 688 35 18 Bermeo
decoracionesinigobermeo@hotmail.com



Zaindu

Centro de terapias para la belleza,
la salud y el bienestar

Erreñezubi 16
48370 Bermeo
Tel. 94 602 83 84

 Zaindu Bermeo



**AL
DA
TZE
TA**
Ostakua

Erremedio kalea, 24
48370 BERMEO (Bizkaia)

Tfn. 94 618 77 03
Móvil 630 22 52 14
h.aldatzeta@hotmail.es



Hankatxo
TRAKURRIEN E-ERANDEGIA



Hankatxo Bermeo

Irakasti 4 - Bajo
(Al lado de los Municipales)
48370 BERMEO - Bizkaia
TR-94 675 73 11



**LLONA
INPRENTA**
Offset + Digital

IMPRESOS EN GENERAL
DISEÑO - COPIAS
CARTELERIA
GRAN FORMATO
VINILOS - ROTULACION
ENCUADERNACION
RECLAMOS PUBLICITARIOS

ARRESI 26 ☎ 94 688 04 15 Bermeo
info@llonainprenta.com www.llonainprenta.com



**EROSKI
city**

Maria eta Toni

ETXEZ ETXEGO Arresi kalea, 21
ZERBITZUA Tel. 94 618 64 17
Reparto a domicilio 48370 Bermeo (Bizkaia)



ARIANA LENCERIA

Etxebarria Tar Kresentzi 21
48370 Bermeo
Tel. 94 688 59 92

 Ariana Lenceria



Itziar Abarrategi López
ODONTÓLOGA
I.M.O.

Irakasti, 34 - Bajo
Tel. 94 608 54 70
BERMEO - BIZKAIA



VIAJES AMAIA
www.viajesamaia.com



T-KIMUA

Erremedio kalea, 26 bajo
48370 BERMEO - Bizkaia
Tlf: 94 603 98 02
tkimuadenda@gmail.com

 T-Kimua



"SORTU, ERAIKI, JOLASTU"

JOSTALU DENDA BAT BAINO GEHIAGO!

**KUKU
eneo**

ERREMEDIKALEA II (BERMEO)
Tf: 636 347.153



Berargi
Elektrizitatea

Askatasun Bidea, 49 Bajo
48370 Bermeo (Bizkaia)
Móv.: 645 70 58 88
Telf: 94 618 63 48



Lenceria Marian

URDAIBAI
©MAGAZINE
www.urdaibaimagazine.eus
Zure Aldizkaria



URDAIBAI
ARRANTZA
KUDAKARITA
EMERSON DUMAS
BETICOR DUMAS

ARTEAGAKO GAZTELUA

Urdaibaiko estuarioko padura berdeetan Arteagako Gaztelua altxatzen da, Frantziako enperatriz izan zan Eugenia de Motijok, Napoleon III.aren emaztea izandakoak enkargatutako udako erresidentzia. Bertan ez zan inoiz bizi. Kareharrian moldeatutako silueta paregabeak printze eta printzesen ipuinetakoa dirudi.

Ozollomendi auzoan, kokaleku pribilegiatu batean, Arteagako gaztelutik, Mundakako ibaia eta Ereñozar zein Atxarre mendiak estaltzen dabezen kantaurialdeko artadia ikus daitezke.

1856. urtean, Napoleon III.aren eta Eugenia de Montijoren seme zan Eugenio Bonaparte, jatorrizko bizkaitar izendatu ebeen Bizkaiko Biltzar Orokorrak, ama Montalván eta Arteagako etheen ondorengoa izateagatik. Enperatrizak segituan eskatu eutson etxe inperialeko arkitektoari, Mr. Couvrechef-eri, defentsa dorrearen (XIII.m) berreraikitze osoa, bere aintzindarien leinu zena. Bere narriadura zela



eta, arkitektoak osorik eraiki behar zela planteatu eban. Obra hasi eta hiru hilabetera hil egin zan eta Frantziako etxe errealeko beste arkitekto batek, Ancelet-ek, bukatu eban proiektua. Honen emaitza erdi-aro amaierako estiloko jauregia dogu, frantziar arkitekturan oinarritutako dorre neogotikoagaz eta bere ikutu erromantikoekaz.

Dorre zaharretik kanpoaldeko hormak kontserbatzen dira, bertan sarrera bat zabaldu zan. Dorreak sotoa eta lau solairu ebazan. Upelategiak sotoan zeuden, beheko solairuan sukaldea baita zerbitzuko gelak be. Bigarren solairuan logela nagusiak eta kapera zeuden eta hirugarrenean, morroien eta neskameen logelak. Solairuen arteko lotura dorrearen erdialdean kokatutako karakol eskilara baten bidez burutu zan.

Barrualdean, paneldun zein teladun sabaien dekorazioa nabarmentzen zan, baita neogotiko estiloko tximinia dotoreak be. Kanpoaldean, Frantziako etxe errealeko Newman lorezainak izugarritzko lorategiak diseinatu ebazan. Proiektu hartatik, oraindik kontserbatzen dira lursaila mugatzen ebezan zuhaitzek.

XX. mendeko 90. hamarkadan, gaztelua hotel gisa atondu zan. Erreformak estilo originala errespetatuz burutu ziran. Oraindik ikus daitezke hormak arintzen dabezen elementu neogotikoak diran arku zorrotzak, animalia fantastikoen gargolak, arku itsuak eta militarren arkitektura gotikoko almenak, merloiak eta matakanak. Barrualdean, garaiko estiloa errespetatu da, gaur egun be, XVIII. mende amaierako Frantziara garraiatzen gaitu.



JOSE LABAURIA PLAZA

BONBARDAKETAN ALKATEA IZAN ZANARI OMENALDIA

Don Tello eta Nere Kabia kale tartean, Gernikako Jose Labauria plazak, 1937ko apirilaren 26ko *Bonbardaketaren alkatearen* memoria berrezarri dau. Jose Labauria plaza, alkate eredugarri izandakoari egindako onespena da. Honek bere eginkizunean duintasuna, solidaritatea eta zentzutasuna eskeini eutson Euskal Herriko historiaren gertaerarik latzena, tragikoena eta mingarrienari.

2017ko apirilaren 22an, Gernikako Bonbardaketaren 80. urteurrena ospatzeko ekitaldien barne, Jose Labauria plaza inauguratu zan. Gizon argia, intelektuala, balioekaz eta huts bako jokabidekoa, bai politikan bai bizitzan be.

Jose M^a de Labauria y Porturas Gernika-Lumon jaio zan 1888an. Merkataritza-nabigazinoko kapitaina izan zan, bai-na lanbide honi itxi egin eban, Antonio de Irueta, bere aita-orde izan zenaren familiaren negozioa kudeatzeko.



*“Hizketan aritzeko onan.
Filosofia asmatuta
egongo ez balitz,
Labauriak sortuko eban”*

Jose Labauria plazan, Jose M^a de Labauria y Porturas bezala, Gernikako Bonbardaketa sufridu ebeen pertsonen omenezko erakusketara dago ikusgai.

Oso persona kultua eta ilustratua izan zan. Euskal Herriko Unibertsitatearen sorkuntza aldarrikatu eban. Gernika-Lumoko Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasconko burukidea izan zan. Gerra zibila hasi zanean, gatazkaren garrantziagatik eta Udaltzako zenbait zinegotzi kargua utzi edo hil ziralako, zinegotzi izentau eban 1936ko abenduaren 12an, kooptazio bidez. Gobernatzeko Batzordeko presidentea izan zan Labauria, eta Hornidura ta Garraioko Batzordearen mahaikidea.

Ezustean, alkate izentau eban, EAEko (Eusko Abertzale Ekintza) Basilio de Astelarra alkateak dimisinoa emon ebakiko.

Jose Labauriak lehen aldiz jarri eban ikurrinea udaletxearen hagan, 1937ko urtarrilaren 17an. Hilabete geroago, 1937ko otsailaren 13an, hamahiru udalkideek aho batez onartu eban alkate izendatzea.



Alkate gisa euskararen erabilpena defendatu eban, udal gaietan eta ohiko bizimoduan be. Baina nabaria izan zan bere jarrera apartekoa Gerra Zibilan eta Gernikako Bonbardaketan.

Apirilaren 26an, aireko erasoak amaitu zanean, bonbardaketeak eragindako suteak amatetako lanak eta herritarrek Bilbora ebakuetako lanak zuzendu zituan. Apirilaren 29an, "nazionalak" sartu baino apur bat arinago, herritar gehienek legez, Gernika-Lumotik alde egin eban.

Maiatzaren 4an, Radio Emisora Bilbaina-ren (Radio Bilbao) bidez, Gernika-Lumon gertatu zanaren gaineko dei eta salaketa ezaguna egin zituan, George L. Steer kazetariagaz, Bonifacio Echegaray legelariagaz, Eusebio Amonategui abadeagaz eta Jesus Maria de Leizaolagaz batera.

***“Beti be gizabidetsua,
bai erlijio arloan baita
moralan be, borondate
ona erakutsi eban”***

Frankistak aurrera egiten ebilzanez, Bilbotik Frantzia kontinentaletako eremu euskaldunera ebakua eben itsasontziz, beste euskaldun asko legez. “La Roseraie” kolonian atezaina izan zan, Euzkadiko Gobernuak kudeatutako hospitalean, Bidart inguruan. II. Mundu Gerra hasi zanean, eta alemania-rrek aurrera egin eta eremu euskalduna okupatu ebanez, penintsulara bueltau zan. Horretarako, Bidasoa ibaia zeharkatu eban, ezkutuan. Vigoko komentu baten babesa hartu eban, laguna eukan abade euskaldun baten laguntzaren bidez. Halanda be, topau egin eben. Atxilotu eta Bilbora eroan eben, Larrinagako kartzelara, eta 12 urteko espetxealdi handiko zigorra jarri eutsien.

Oso gaixo egoanez, libre itxi eben. Bilbon hil zan 1945eko urriaren 31n. Hileta Bilbon izan zan eta Gernika-Lumoko Zalloko hilerrian lurperatu eben. Jenteak dolu handia adierazo eban.

gurearen zaporea el sabor de lo nuestro



*Eusko Labelen marka ziurtatuko
kalitate goreneko eta zapore bikaineko
produktuak eskaintzen dizkizu.*

Gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoiztako, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak.

Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzearaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu.

Gureak ematen duen gozamena.

*Eusko Label te obrece unos
productos de marca certificada
de la máxima calidad y excelente sabor.*

Nuestros baserritarras y arrantzales sacan lo mejor de nuestra tierra para ti. Productos agroalimentarios producidos, transformados y/o elaborados en Euskadi.

Comprando Eusko Label no solo te llevas la más alta calidad, también contribuyes al mantenimiento de nuestra economía, de nuestro sector primario, nuestros paisajes y nuestra cultura.

Es el placer de lo nuestro.

URDAIBAIKO TXAKOLINA

PAISAIA BATEN USAIN
GOZOA ETA BUKETA

Bizkaiko Txakolina jatorri-izendapena

Gaur egun, Kontseilu Erregulatzailleak hiru mahats barietate nagusi edo gomendatuak onartzen dauz Bizkaiko Txakolina jatorri-izendapenaren barne:

- Hondarribi zuri
- Hondarribi zerratia (Petit Corbu)
- Hondarribi beltza

Eta 6 barietate baimenduak:

- Mune mahatsa (Folle Blanche)
- Izkirota (Manseng)
- Izkirota ttipia
- Sauvignon blanc
- Riesling
- Chardonnay

Azken hauek, erregulazio zorrotz bati lotuak daude, upeltegi bakoitzeko landutako mahastiaren azalera osoaren arabera: gehienez %20-a Izkirot, Sauvignon, Riesling eta Chardonnay barietateentzako eta gutxiaren %20-a Mune mahatsarentzat (Folle Blanche).

Hala ere, ardua barietate bakarraren izenez merkaturatzen danean, barietate nagusi edo gomendatuak besterik ezin daitezke erabili eta %85-eko gutxieneko kopuruan.

Gainera, mahatsaren kalitaterik onena bermatzeko, Kontseilu Erregulatzailleak hektarea bakoitzeko gehienezko produkzio zifrak ezartzen dauz.



TXAKOLINA GEURE KULTURA ETA NEKAZAL HISTORIAKO KONTSUMO-PRODUKTU FUNTSEZKOA DOGU: ANTIXINA ETXeko-ARDAUA ZAN, LEHENGO BASERRIETAKO AUTOHORNIKUNTZA EKONOMIAREN OSAGARRI ATSEGINETARIKOA.

Bere produkzio zifrak produktu honen garrantziaren islada dira, baita bere garaian hartutako neurri fiskalak be.

1850. urtean, *oidium*-aren erruz pairatutako atzerapena baino arinago, txakolinaren produkzioa Bizkaian 150.000 arradatik gorakoa zan, gutxi-gora-behera 24.000 hl. Produkzioari aplikatzen jakozan tasek, ondoren Bizkaiko bide sareen eraikuntzarako erabiltzen zirenak, bizkaitarrentzat produktu "estrategikoa" zela adierazten dabe, ondo sustraitutakoa.

Urdaibai antxinatik dago mahastizaintzagaz lotuta. Honen adierazle dira, enparratuak eusteko erabiltzen ziren lehengo garaietako harrizko estrukturak. Hauek oraindik ikus daitezke Busturi eta Forun, herri hauen paisaiaren parte dira.

XIX. mendearen amaieratik aurrera, txakolinaren produkzioak gainbehera egin eban eta ondorioz, XX. mendeko, ardaun honen zirkuitu komertzialak ia guztiz desagertu ziran. Txakolina etxean kontsumitzeko egiten zan bakarrik.

1994. urtean, Bizkaiko Txakolina jatorri-izendapena sortzen da, txakolinaren berpiztea ahalbidetuz eta ziurtatuz.

Goraldi komertzialaren etapa barri honetan, Urdaibai produkzio gune gisa sendotzen da. Bizkaiko produkzio gu-

netako batz-besteko zifren aurretik kokatzen da laborantza eta upeltegi kopuruei dagokionez. Kalitatea, barrikuntza eta ildo barrien bilaketaren aldeko apustua eskualdeko upategien adierazgarria da. Hauek planeta osoan zehar merkaturatzen dabe egundoko kalitatezko ardaun. Zalantza barik, jatorriko mahatsak ematen deutso berezitasuna geure ardaunari, besteengandik desbardinduz, baita bere jatorri historikoek edota paregabeko ñabardurek be.

Urdaibaiko upategiek ondo baino hobeto aprobetxatu dabe aparteko kokapen hau, biosfera erreserban, hain zuzen be, etorkizunerako aurreikuspenagaz, lanerako gaitasunagaz eta irudimena erabiliaz. Balio segurua da hau, kotsumidore zorrotzak jatorriarekiko erlazioa bilatzen dau hemen: fruta, lurra, klima eta ingurunea. Usain gozoa, zaporea, jatorriko ingurunearen ezaugarriak eta kataren pertzepzioen arteko erlazioa estuagoa da bertoko txakolinan, Urdaibain maridajea ezin hobea da.

Enologoek eta mahastizainen lan apartak, mahatsen barietateei forma eman deutse, barietate nagusiaren funtsezko papera suntsitu gabe; Hondarribi Zuria, Bizkaiko Txakolinaren nortasuna aberastu egiten dabe.

“Txakoli hitza "etxeko ain"etik etor liteke ("etxerako adina"). Hala erantzuten omen ebeen baserritarrek urteko uztaren gaineko galderari.

Visit Urdaibai
© bai Nueva Europa

IBILBIDE TURISTIKOAK
Kulturalak eta ekologikoak top

KARTARA, **UMEEKIN**
URTE GUZTIAN ZEHAR

Erreserbak: www.visiturdaibai.com

EUSKAL SOUVENIRS

Andra Mari kalea s/n.
48300 **GERNIKA**

946 251 930 - 685 758 102

euskal.souvenirs@gmail.com www.euskalsouvenirs.com



Josu Olanok Arratzuko alkateak eta Mikel Etxeberria, ATHEKA 2010 S.M. Errementari putzuen inguruan datoak aztertzen.

BIOTEKNOLOGIA URA ARAZTEKO ARRATZUN

Gure herrietako orografia eta izaera sakabanatua da, ur zikinen araztegietatik urrun dauden baserriekaz. Honek, gaur egun erabiltzen dan ur hondakinen saneamendu sistema, sistema septiko xumea izatea dakar, naturan isurketak eginez. Hauxe ez da erarik egokiena baina saneamendu maila apur bat bermatzen da bidezko kostuagaz. Izan be, isurketa guztiak batzea eta ondoren araztegietara eramatea ez da ekonomikoki bideragarria. Urdaibaiko Biosfera Erreserban, balio handiko natura gunea, Arratzu bezalako herriek bioteknologian aurkitu dabe laguntza.

Arratzuko Udalak, saneamenduko arazori irtenbidea bilatuz, tratamendu biologikoa erabiltzea aukeratu dau, saneamenduko prozesuak hobetzeko. Sistema honen bidez, depurazio maila handiagoa lortzen da, naturan botatzen dan isurketak ez dau usainen arazorik ekarten, ezta ur zikin edota intsektuak bez. Gainera, ponpaketa egiteko kamioiaren beharrik ez dau, lokatza kentzeko orduan.

Sistema honetan, tanke septiko baten mikroorganismoek (batez be prozesu natural batez sortutako bakterioak) solido organikoak digeridu egiten dabe eta hondakinen eduki organikoa murrizteko prozesuari emoten deutse hasiera. Karga kutsagarriaren deskonposizioa burutzen da, tanke septikoaren aktibitate gehiena anaerobikoa da, hau da, aieririk bakoa. Nahiz eta aktibitate osagile eta mikroaerofilikoa egon (oxigeno kopuru gutxi behar daben mikroorganismoak).

Sistema septiko baten edozein prozesu biologiko bezala, sisteman beharrezkoak dan aktibitate biologikoaren

faltgatiak sortu daitekezen arazoak izan ahal dauz: usain txarrak, ureztatze edota butxadurak. Sistemak laguntza izanezkerok, ez dabe horrenbeste hutsik egingo.

Bioteknologia horrela definitu daiteke: *"sistema biologikoak edota bizirik dauden organismoak erabiltzen dabezen teknologiek, erabilpen jakin baterako produktuak edo prozesuak sortu edo moldatzeko orduan"*. Mikroorganismoak modu naturalean emoten deuskuen baliabideak erabiltzeak, prozesu bioteknologikoak hondakin hauek manejatze gero eta erabiliagoa dan teknologia gisa ikustea ekarten dau. Modu ekonomikoan eta guztiz ekologikoa.

Era honetako tratamenduak mundo guztian erabiltzen dira, mekaniko edo kimikoak diran beste prozesu batzukaz alderatuta eraginkorrak eta ekonomikoagoak direlako. Hiri ur hondakinak tratatzeko sistma bezala daude errotuta, baita hondakin industrialak (lindano, hidrokarburoak, mindak, etabar), nekazaritzan eta arrain-haztegiatan.

Busturialdeko
mankomunitatea



MARROIATIK... BERDERA

Arratzu Elantxobe Gautezig Arteaga Ibarrangelu Kortezubi Mendata Muxika

Bioteknologiaren garatutako teknikak, hiri ur hondakinen tratamendurako, orokorrean materia organikoa murrizteko eta etxeetako uretan dauden bestelako agente kutsakorrek kentzeko erabiltzen dira. Baita depurazio prozesuko hondakinen emanazioa produktu erabilgarrietan bilakatzeko, inongo kalterik egin barik, ingurugiroan askatzeko balio erantsiagaz (araztegi-tako lokatzen konpostak, adibidez), eta ingurugiroari egindako trasferentzia hobetuz, bakterioak biderkatuz behin sistema septikoa egonkortuta, lurri eta ibaiei biologia onuragarria bueltatuz, gizakiak bere jarduerakaz kendutako onurak.

Horrela, ingurugiroa eskeinitako onurak isurketa kutsakorren maila zorrotzak betetzeari laguntzen dabe, ur zikinetan dauden parasitoak eta patogenoak murriztuz eta ingurugiroaren flora eta fauna babestuz.

Zelan dabil sistema?

Erabiltzen dan produktua, likido baten bakterio bizien konbinazioa da, kutsatutako hondakin industrialen, nekazaritzako edota etxeetako uren tratamenduan erabiltzen den likidoa, hain zuzen be. Ez dira patogenoak eta ingurugiroa errespetatzen dabe.

Bakterioak tanke septikoetara edota gantz tranpatan botatzean, hauen eraginkortasuna zeharo hobetzen da. Garbitasun garestiak edota ponpaketa prozedurak erabiltzearen beharizanak ekiditu edo murriztuz. Gainera kutsatutako gune baten gehitzaerakoan bakterioak berehala berpiztu egiten dira, elikatzen hasten dira, ugaltu egiten

dira eta uretan dauden hondakin organikoen kontra egiten dabe. Guztia modu ekologikoan, ez toxikoa, ez korrosiboa ez karruskagarria, guztiz biodregagarria.

Produktu honegaz honako emaitzak eta ezaugarriak bermatzen dira:

- Intsektuen eta etxeetako bestelako gaitzen hazkuntza guztiz murriztu.
- Pilaketa eta butxadura barik mantentzen dauz drainatzea eta drainatze ekipoa.
- Solido organikoak guztiz desegiten dauz, ponpaketa erraztu egiten dau arinago eta eraginkorrago eginez.
- Ez da toxikoa gizaki, landara, itsasoko animalia eta ingurugiro orokorarentzat.
- Produktua guztiz naturala da, bakterioaz eta mikroorganismoaz osatuta.
- Ingurugiroari laguntzen deutso eta osasuna hobetzen dau.
- Biltegia 5 urteko iraupena dauko.
- Erraz erabiltzekoa
- Mekanikoki kentzeak suposatzen dauezen kostuak kendu egiten dira. Mekanikoki urte batez bakarrik babesten da sortutako kutsaduraren hartzailea.

Arratzun egindako frogen ondoren eta lortutako emaitzak ikusita, tratamenduaren eraginkortasuna baieztatzen da. Egun gutxitan emaitza onak batu dira, parametro kutsakorrek zeharo murriztu dira ubideetan.

PUTZU	ARRATZUKO EMAITZEN TAULA					
	OEB5		OEK		S.S	
ERREMENTARI	1200	600	2550	989	747	356
<i>murrizketa</i>	%60		%61		%52	
LUANGOIKO	3300	34	6500	131	6440	79
<i>murrizketa</i>	%99		%98		%99	
URUKULU	480	150	880	25	538	134
<i>murrizketa</i>	%69		%97		%75	
URIARTE	12000	150	25450	371	31700	134

ATHEA 2010 SL, Arratzuko putzu eta hobi septikoetan biodregaziorako tratamendu biologiko naturala garatzen dauen euskal enpresa da. "Oraintxu Mendata gehitu da sistema hau aplikatzeari eta zenbait hobi septikoetan lanean gabiz. Laster emaitzak ikusiko dira hemen be. Geure zerbitzuak ur zikinetan aplikatzen doguz, hidrokarburoen hondakinen kutsadura kentzeko be eraginkorrak dira geure beste tratamendu batzuk. Urtegi-tan algak kendu eta arroza edota arto laborantzaren etekinak hobetzen doguz be. Arrain-haztegi-tan be emaitzak nabariak dira".

OEB5: Oxigenoaren eskaera biokimikoa

IA: Indize Ambientala OEK: Oxigenoaren eskaera kimikoa

S.S: Suspentsioan dauden solidoak



Gure eskualdea bermatuz

Landa Garapen Elkarte / Domingo Alegria enparantza, z/g - 48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
Tel: 94 625 76 09 / www.urremendi.org / urremendi@urremendi.org

...Madalenara, Mada

Bermeoko portuak irakite puntuan dirudi Madalena egunean, itsas erromeria Izaroren eta jaiaren konkistara dijoanean. Eguneko lehen orduetatik ospatzen den festa dogu, itsasontzien preparazioa, ibilbiderako hamaiketakoak... denak egon behar dau prest itsasoratzeko.

Tradizioari jarraituaz, ospakizuna goizetik hasten da Bermeon. Maoizko alkondara urdinaz eta jaietako laukidun zapi tipikoaz, alkatea eta zinegotziak Bermeoko Udaletxe aurrean batzen dira. Bertatik, txistularien doinuaz, erromerian abiatzen dira Santa Eufemiako elizararte. Meza santuan auzokideek zein autoritateek parte hartzen dabe. Bertan, eguna bedekatzeko da, jai giro alaiaren aurreko ekitaldi ospetsu eta serioa ospatuz.

Ospakizun erlijiosoaren ostean, erromeria portura zuzentzen da. Bertatik, prozesio maritimoa itsasorantz abiatzen da, beste enbarkazinoekaz batera. Darsenan auzokideek irrintzi artean agurtzen dabez. Helburua

Uztailaren 22an, Izaroko itsasoa Bermeo, Munda-ka eta Elantxobek partekatzen daben jai hutsa bihurtzen da. Bermeok Izaro irlaren jabegoa aldarrikatzen dau eta hiru portuek **MADALENA** ospatzen dabe, urdin koloreko jaialdi alai eta erakargarrian. Kresalez eta tradizioz jositako festa hau, **Urdaibaiko ude-tako jaien artean magikoenetarikoa dogu.**

Izaro irlaren konkista da. Itsas festa honen irudia apartekoa dogu. Itsasontziek portua uztean geratzen den estela zuri eferbeszentea guztiz hunkigarria da. Lantxak, arrantza-ontziak, piraguak zein yateak, guztiak itsasoratzen dira enbarkazio ofizialagaz batera.

Bidaian zehar, giroa, musikaz, bozinez eta olatuen soinuez animatzen da. Bide erdian, ontziak Izaro irlaren parean gelditzen dira. Bermeoko ordezkariak batek oina lurrean jartzen dau irla ikurrinagaz koroatuz. Heldu da guztien artean momenturik eta magikoena. Gainontzeko ontzi guztiak itxaroan daudela eta begirada guztiak momentu hartan jarriak, ontzi ofiziala irlarekiko paralelo kokatzen da. Proa Elantxoherantz dauelarik eta Izarori lepoa emonez, Bermeoko Alkateak teila bat botzatzen dau uretara ondorengo esaldi hau esanez: "Honaino heltzen dira Bermeoko itoginak". Esaldi horrek Izaroren jabetza dagokiela adierazten dau. Era kurioa da irlaren jabegoa aldarrikatzeko. Nola ez, Madalenako doinua jotzen dabe ontziratutako tamborilerok, kantu, irrintzi eta koheteen artean. Alaitasuna giroan nabaria da.



lenara...!

*Neska zaharrak
joaten dira
Madalenara, Madalenara.
Santari eskatutzera
nobioren bana, nobioren bana,
komeni bada...*



Teila bota ondoren, itsasoko tropak bere ibilbidea jarraitzen dau Elantxobeko porturarte. Bidean zehar, hamaiketako tradizionala egiten da, atune, makailoa eta arda. Ogoñoren babesean, herriak nabigatzaileak festa giroan hartzen dautz. Elantxobeko Alkateak eta korporazioak harrera egiten deutsee eta agintearen bastoia eskaintzen deutse Bermeoko Alkateari.

Prozesioak oinez jarraitzen dau portutik herriko kale estuetara, Elizabarri plazara heldu arte, San Nikolas de Bari elizaren aurrean (garai batean Izaro irlan zegoen komentu baten irudiak gordetzen dauena). Aurrekuak, ari-arinak, fandangoak, biribilketak... guztiek dantzaten dabe elkarrekin.

Autoritate eta gonbidatu ofizialen bazkariaren ostean, itsas prozesioa Mundakarantz abiatzen da, bertan kortesiako bisita egingo da. Hemen, autoritate bermeotarrari aginte bastoiaren eskaintza errepikatzen da eta udaletxerantz abiatzen dira. Bertan, gonbidatuen omenezko aurrekuak dantzaten da. Berehala dator Bermeora bueltatzeko unea. Herri guztia egongo den prest ontzien harrera egiteko. Emozioz eta iskanbilaz betetako momento honek, festa enblematikoaren eguna biribildu egiten dau. Udaletxe aurreko aurrekuaren ostean, erromeriak eta festak ez dauke amaierarik.



Busturialde,
EUSKARA eta
URDAIBAIEN alde



Ba al zenekien...?

Madalena egunaren jatorri historikoa "mugarrien bisiteta" dago oinarrituta. Hauek herrietan egiten ziren lurraldeko mugak zeharkatzeko. Aingeru Astui, Arrantzale Museoko Zuzendariak horrela argitzen dau: "Erdi Aroko Bermeoko ordenantzek bisita egiaztatzena derrigortzen eutsezan korporazio bermeotarrari. 1754. urteko ordenantzek (aurreko bi mendeetakoetan oinarrituta zeudenak) horrela dinoe "...urtero nahitaez justiziak eta erregimentuak Yslas de Yzaro eta San Juan de la Peña, Jurisdikzio Terminoetan adierazten dan bisita orokorra egitea, mugarriak erauzirik, mugituak edo iraunkor daudela egiaztatzeko...". Ordenantza hau jarraituaz, uztailak 22an urtero burutzen da Izaro irlara bisita eta ospakizunak oihartzun gutxiago izan arren, bermeoko zinegotziak, abuztuaren 29an be, urtero, Gaztelugatxeko San Juan irlara abiatzen dira udalerraren mendebaldeko muga berresteko.

Halanda be, oinarri historikoki izan gabe, badago Madalena festaren jatorria XVII. mendean kokatzen dauena. Asmatutako bertsioak ez dauko erreferentziarik ezta dokumentazio historikori bez. Herri tradizioak diotenaren arabera eta Muñoyerro kazetariak argitaratu eban bezala, Izaro irla Mundaka edo Bermeorena zan erabakitzeke estropada bat ospatu zan. Elantxobe testigu eta epaile izan zan. Bermeok proba irabazi eta egun hartatik ospatzen dau festa bere jabetza aldarrikatzeko. "Zortzi egunetan zehar entrenatzen ibili zan tripulazioa eta 1719ko uztailaren 22an bi trainera isometrikok, bata Bermeokoa eta bestea Mundakakoa, bakoitza 13 arraunlarirekaz eta patroï bategaz, lehen postuan Bermeoko trainera heltzen da, irla beraintzat hartuz...". Esan bezala, narrazio honek ez dauka oinarri historikori. Izan be, 1422. urteko dokumentuetan agertzen dan bezala, ordutik dago Izaro irla Bermeori lotuta. Garai hartan, Bermeok fraile frantziskotarrei emon eutseen irlako lursailak.

ferrovial
servicios

**SIEMPRE AL SERVICIO DEL CIUDADANO
CUIDANDO EL MEDIO AMBIENTE**

Bekoibarra, nº 31 / 48300 Gernika-Lumo / Tel. 94 625 47 27

L&G
LOGÍSTICA

**TRANSPORTE,
ALMACENAJE,
DISTRIBUCIÓN...**

Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika - Lumo
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es





Kondaira faltsuak bertsio anitz dauzka, udalerrien arteko tirabiretatik eratorritako kontuak. Mundakan, adibidez, honakoa kontatzen zan: lantxek oilarren kantua entzutean irten behar ziranean, bermeoterrek sumetak biztu ebezan, beraien herriko oilarrek arinago kantatu zezaten, era horretan, irabazi ahal izateko abantaila nahikoa lortu eben.

Elantxobetarrei *makuesak* izenaz ezagutzen jake. Batzuek, izen hau Bermeo eta Mundaka arteko lehia horregaz lotzen dabe, bertan Elantxobe epaile izan zan. Erabaki arbitralaz izandako akordio faltak hurrengo esaldia sortu eban antza: maljueces...eta hortik heldu zen *Makues* izatera.

Urtero, uztailaren 22an itsasora jaurtitzen diran teilak herriko eraikin zaharretatik hartzen dira. 2013. urtean, Bermeoko alde zaharra suntsitu eban suteak utzitako hondakinetatik hartu zan teila, kaltetuen alde. 2014. urtean, teila berezi bat jaurti zan, Txuspo Poyo artista nafartarrak diseinatua, altzairuz egina eta bere barnean teila zahar zatiak eta ontzi zaharren zatiak gorde ziren.

Madalenako jaialdia bezperako gauean hasten da, Bermeoko Baztarre plazan, Santa Madalenaren irudia gordetzen dauen horma-hobia kokatuta dagoen lekuan.

Mundakatik Bermeora bueltan, antxinan "bordeadak" egiten jakezan ontzi ofizialari. Sari bezala, Bermeora heltzean ardu razioak jasotzen ebezan enbarkazioek. Maniobra hauek arriskutsuak ziren, ontziak enbarkazio ofizialaren aurretik gurutzatzen ziren eta honek maniobra hoberena egiten ebana apuntatzen eban ondoren saritzeko. Urteak pasatu ahala eta segurtasun exijentziak direla eta, ohitura hau desagertuz joan da.



Itsasontziak Bermeora heltzen itsazbidea egin ondoren (1960ko hamarkada).



Elikadura-segurtasuna eta ingurune-segurtasuna

Kontrol analitikoak

Autokontrol planak: arrisku sanitarioen prebentzioa

APPCC eta PGH - Igerilekuak, giza kontsumorako urak eta legionelosisia

Diagnostiko integralak

Barne Airearen Kalitatea (CAI), klimatizazioa, iraungitzeak, bizitza baliagarria, bio-diagnosiak

Aholkularitza

Formakuntza



Hauen kideak gara:



C/ Zabaloa, 13 - Galdakao . T. 944 566 580

www.biotalde.com • info@biotalde.com • biotalde.blogspot.com





Bizkaia Zurekin



Bizkaia
goazen